

## ISSOTL konferentzien pedagogia

ISSOTL konferentziek diziplina anitzetako eta mundu osoko profesionalek, ikasleek eta irakasleek osatutako komunitatea biltzen du. Komunitate horrek goi-mailako ikaskuntza eta irakaskuntzaren hobekuntza eta artikulazioari buruzko ikerkuntza sustatu eta emaitzak eta ondorioak hedatzen ditu. **Helburuarekin bat doa konferentzien kultura konplexua: jatorri anitzetako eta helburu komunak dituzten parte-hartzaileak.** ISSOTL konferentzietako parte-hartzaileek lan garrantzitsua egiteko asmoa dute –goi-mailako ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzea eta ikaskuntza esanguratsuari buruz ezagutza areagotzen laguntzea. Halaber, gure ustez, elkarrekin (edo, behintzat, lerratuta) ari gara helburu horiek lortzeko lanean. **Denborak aurrera egin ahala, ahalegin horrek konferentzien pedagogia sortu du, konferentzian ezagutza elkartrukatzeari dagokion ikuspegia; horrek izaera akademikoa, interaktiboa, inklusiboa eta kolaboratiboa izan behar du.**

**Ikuspegi akademikoa bereganatu dugu.** Gure konferentzien saioetan, gure lana literatura esanguratsuan oinarritzen da eta beste parte-hartzaileentzako interesekoak diren ikaskuntza eta irakaskuntzaren alorreko alderdi esanguratsuekin lotura izaten saiatzen gara. Irakaskuntza eta ikaskuntzaren Ikuspegi Akademikoa (SoTL ingelesezko laburdura) konferentziara bertaratzen den ororen izendatzaile komuna dela jakinik, gure lana SoTL eremuan ere kokatzen dugu, "jardunbide egokien printzipioak" aplikatzen ditugu (Felten, 2013) eta horien gainean hausnartu eta zalantzan ipintzen ditugu. Intelektual apalak ere bagara, jakin-min handia dugu ezagutzen ez dugun horrekiko, gauza berriak ikasteko irrikitan gaude eta badakigu gure bakarkako ikerketek ez digutela lotura eta egoera guztiei aplikagarria den erantzuna lortzen lagunduko.

**Bertaratutakoekin esku hartzen dugu eta gure lana modu interaktiboan partekatzen dugu.** Hala, aurkezpena egiteko *modua* ere akademikoa da, edo oinarri enpirikoko irakaskuntzaren praktiketan oinarritzen dena. Diapositiba batzuk (edo poster bat) erakuts ditzakegu, ideia garrantzitsuak biltzen dituen esku-orria prestatu eta ozen irakur dezakegu zatiren bat edo beste, baina aurkezpenetarako gure estiloak, saioa edozein motatakoa izanik ere, elkarrizketa sustatzen du, elkarreragitea erraztu (baita ikaskuntza aktiboa ere), iritziak eta iruzkinak bildu eta, noski, galderak egiteko gonbita luzatzen du.

**SoTL hainbat testuingurutan kokatzen denez (adibidez, diziplina, instituzioa, herrialdea, kultura, hizkuntza, etab.) ISSOTLek aniztasuna sustatu eta bere egiten du.** Konferentziak nazioartekoak eta diziplina anitzekoak dira. Parte-hartzaileen artean daude irakasleak, ikasleak, garatzaile akademikoak eta administrariak. Batzuk SoTL-arekin lotutako esperientzia handia dute eta beste batzuk, aldiz, beren ibilbidea hasi berri dute alor horretan; beste asko ere bi muturren artean daude. Ikuspegi eta esperientzien aniztasun hori ISSOTL-en indarguneetako bat da. Gure berariazko nortasunak, testuinguruak eta ikuspegiak gogorarazten dizkigu, baita berezitasun horien inplikazioak ere. Diferentzia horiek aintzat hartuta, horiek ebazteko ikaskuntza eta irakaskuntzari buruzko elkarrizketa sustatzeko lan egiten dugu, ezagutzen ez ditugun pertsonekin jarduteko berariazko ahalegina egiten dugu. Diferentziak horiek murrizteko ahaleginaren adibide da, baita ere, konferentziak munduko hainbat lekutan ospatzen ditugula, eta gure aurkezpenetan esku-hartzea eta ingelesa hizkuntza komun gisa sustatzen duten pedagogiak erabiltzen ditugula.

**Aniztasuna inklusiboak izaten sustatzen dugu, gure lana eskuragarri egiten saiatzen gara eta bertaratuek esku hartzeko modu anitzak eskaintzen ditugu.** Gure aurkezpenak, jarduerak, diapositibak eta esku-orriak beharizan intelektual, sensorial eta fisiko ezberdinak dituztenentzako eskuragarri egiten saiatzen gara. Gure ikuspegi eta testuinguruak azaltzen ditugu, gure terminoak definitu eta jargoia, laburdurak edo beharrezkoak ez diren lengoia tekniko erabiltzea ekiditen dugu, gure aurkezpenetarako erritmo egokia ezartzen dugu eta bertaratuek esku hartzeko formatu alternatiboak eskaintzen ditugu, gurekin edo gure materialekin esku hartu nahi badute (adibidez, gure aurkezpenetan irudi bisualak deskribatzen ditugu, testu digitalak edo paperean eskaintzen ditugu ahozko diskurtsoa indartzeko, idatzizko eta ahozko galderak jasotzen ditugu [fitxak edo inkesta elektronikoak], guk geuk banatzen ditugu materialak, bertaratuei beren artean banatzen ez uzteko).

**ISSOTLen aniztasunarekin konpromisoa dugunez, inklusioa sustatzen duen kolaboraziorako eta laguntasunerako jarrerari eusten diogu.** Diferentziak gaintitzen ditugu, haiekiko interesa azaltzen dugu eta gure egoeratik abiatuta, beste pertsonengandik zer ikas dezakegun galdetzen diogu gure buruari. Diziiplina anitz eta testuinguru kultural ezberdinetatik datozen akademiari ezberdinek erantzunak behar dituzten galderak luzatzen ditugu. Konferentzialariak SoTL eremuan eroso sentitzen saiatzen gara, kritika eraikitzaileari lekua uzten diogu, eta SoTL-en kontraesanak eta zalantzak argitu eta ebatzen saiatzen gara.

Adierazpen hau 2017ko uztailean idatzi zuten Nancy Chick-ek eta ISSOTL-eko administrazio kontseiluko kide hauek: Sarah Bunnell, Peter Felten, Bettie Higgs, Aaron Long, Karen Manarin, Beth Marquis, Katarina Mårtensson, Kelly Matthews, Jessie Moore eta Lauren Scharff. Elkartearen eta bere biltzarren beharrak asetzeko egokiak diren aldaketak jasoko ditu.